

EKAINAK 28, ANIZTASUN AFEKTIBO SEXUALAREN EGUNA

“Ataunen aske izan, aske maitatu, aske bizi”

“Pertsona guztiak duintasunean eta eskubideetan libre eta berdin” jaiotzen direla jasotzen du Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren Lehen Artikuluak. Baina zoritxarrez, badakigu LGTBIQ+ kolektiboko kideek oztopo nabarmenak dituztela aukera-berdintasunean eta libre bizitzeko. Nahiz eta asko izan sexu-askatasunerako eragile sozialek lortutako aurrerapen eta eskubideak, bide luzea daukagu egiteko oraindik. Aurrera jarraitu behar dugu LGTBIQ+ kolektiboko kideei bizitza zailago egiten dieten traba guztiak salatzen eta agerian jartzen. Bide horretan, “Bidelagun” izan nahi du Ataungo Udalak eta helburu horrekin honako konpromisoak hartzen ditu:

1. Berdintasun-politikan askatasun sexuala txertatzea.
2. Esparru heteronormatiboaren alternatiba eta aniztasunaren espektro zabalaren parte izanik, legitimitatea eta errespetua behar duten sexualitate guztiak agerian jartzea.
3. Gure herrietan gertatzen diren transfobia, lesbofobia eta homofobia indarkeria-kasu guztiak irmoki gaitzestea.
4. Herritarrentzako kontzientziazio- eta sentsibilizazio-kanpainak egitea.
5. Adin txikikoen babeserako politikak bultzatzen jarraitzea, sexualtasunaren adierazpen askea bermatzeko.
6. Sexu-askatasunaren alde lan egiten duten elkarteei lagundu eta gure babesa eskaintzea, bereziki LGTBIQ+ elkarteei eta elkarte feministei.

Amaitzeko, gure herritarrak gonbidatu nahi ditugu askatasun osoz bizi dezaten euren aniztasun sexuala, eta berriro ere, gure miresmena eta elkartasun osoa helarazi nahi diegu Ataunen Aniztasun Afektibo Sexualaren alde lanean aritu diren guztiei.

Ataungo EH BILDU

Ataungo EAJ-PNV

Biboletak Ataungo emakumeen taldea

Martxoak 8ko Ataungo antolaketa taldea

Murkondo kultur elkarte

Ataungo Irakurle Taldea

Jentilbaratza kultur elkarte

Torto Ataungo Gazte Asanblada

Otsoak dantza taldea

Agauntza guraso elkarte

Otsotarrak taldea